

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?



Gure produktua zabaltzen hasteko, ahozko komunikazio-kanala erabiliko dugu. Horretarako, aurkezpen-saioak egingo ditugu gure produktua azaltzeko, eta, gainera, jende ezagunari ordenagailuari buruz hitz egingo dugu produktu biral bihurtzeko.

Bestetik, bigarrenik, idatzizko kanala ere erabiliko dugu. Horretarako, produktuari buruzko informazio guztia duten erreportajeak egingo ditugu eta gure sare sozial guztietan argitaratuko ditugu, eta, gainera, gure erosleei arreta jartzeko kartelak ere sortuko ditugu eta ahal den leku guztietan zabaltzen saiatuko gara. Horrez gain, egunkarietan ere argitaratuko dugu salmenta berria, jendeak honen berri izan ditzan.

Hirugarrenik, kanal teknologikoak edo digitalak erabiliko ditugu eta hau aurrera eramateko gizarte-sare desberdinak sortzen hasiko gara; esate baterako, web orri bat sortuko dugu, non ordenatuaren ereduak izateaz gain, atal bat ere izango baitugu, non erosi ahal izango duzun, eta, gainera, dituzun zalantza guztiak galdetuko ahalko duzu wegunearen bitartez. Horretaz aparte, kontuak ere sortuko ditugu instagram, facebook eta twitter-en eta an ere informazio eta irudiak txertatuko ditugu. Azkenik, posta elektronikoa erabiliko dugu eskaintzak gure bezeroei bidaltzeko.

Amaitzeko gure komunikazio kanalekin telebistaren bitartez ere gure produktua helaraziko dugu eta hau ondo egiteko iragarki ezberdinak egingo ditugu gure produktua azkar eta ondo azaltzeko.

